

2024/05/23an EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 23/05/2024.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2024ko maiatzaren 23an, arratsaldeko 18:30ean, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:30 horas del día 23 de mayo de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.



1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2024-04-25 eta 2024-05-15

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2024ko maiatzaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

3.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK) EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Udalbatzarrak, 2024ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko espedientea onartzea erabaki zuen. Kontratuari kalkulaturako balioa 253.350,78 euro (BEZa barne) urteko da, eta kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 2 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 3 urtetik gorakoa izan.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresak aurkeztu zuen berea:

- PREZERO ESPAÑA S.A.U.

Eskaintzen balorazioaren emaitza honako hau izan da:

Aipaturako haztapena honako hau izan da:

IRIZPIDEA	PREZERO ESPAÑA SAU
Lanaren antolaketa (20 puntura arte)	15 puntu
Makineria (4 puntura arte)	3 puntu
Derrigorrezko zerbitzuetarako eskaintza. (lizitazio prezioa: 228.318,89 euro)	Lizitatutako prezioa: 228.090,57 € Puntuak: 75 puntu
Aukerako zerbitzuetarako eskaintza: (lizitazio prezioa: 100 euro orduko)	Lizitatutako prezioa: 100 € orduko Puntuak: Puntu 1
GUZTIRA	94 puntu

2024/05/23
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

Kontratazio Mahaiak 2024ko apirilaren 30ean egindako proposamena ikusi da.

PREZERO ESPAÑA S.A.U. enpresak eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta behin betiko fidantza jarri duenez, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaraturako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua PREZERO ESPAÑA SAU enpresari esleitzea ondoren esango diren prezioetan. Kontratua baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe egongo da.

Prezioa:

Derrigorrezko zerbitzuak: 228.090,57 € gehi BEZari dagozkion 22.809,06 €

Aukerako zerbitzuak: 100 € + BEZari dagozkion 10 €

Bigarrena.- Kontrata honi atxikitutako langileak GIPUZKOAKO BIDE-GARBIKETA PUBLIKOA ETA HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN BILKETAREN HITZARMEN KOLEKTIBOAREN menpe egongo dira.

Hirugarrena.- Kontratazio honen esleipena eta formalizazioa kontratatzailearen profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean -EBAOn- argitaratzea.

Laugarrena.- 137.095,63 euroko gastua onartzea 2024ko aurrekontuko dagokion aurrekontu aplikazioaren kargura.

4.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 1/2024 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Dirulaguntzen 2024-2027 plan estrategikoa onartzea erabaki zuen.

Plana onartuta, Garapen Ekonomikoko arloak ikusi du planaren 2024-eranskinean jasotako aurreikuspenak aldatu eta *7. lerro estrategikoan: sustapen ekonomikoa eta soziala* AXTROKI MERKATARI ELKARTEARENTZAT dirulaguntza programa berri bat sartzeko beharra.

Proposamena ikusita, eta egindako diktamenarekin bat etorritik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 7. lerro estrategikoan: SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA SOZIALA ondorengo dirulaguntza programa sartzea:

F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: AXTROKI MERKATARI ELKARTEA

- HARTZAILEAK: Axtroki Merkatarari Elkartea
- HELBURUA: 2024an, programaren jardura lerro estrategikoaren helburu estrategikoekin bat etorritik, elkarteak herriko merkataritza sustatzeko antolatuko dituen jardura eta proiektuak finantzatzeko laguntzea.
- LORTU GURA DENA: Eskoriatzako merkataritza dinamizatu eta indartzea.
- DIRULAGUNTZA MOTA: Zuzena-izenduna.

2024/05/23
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

- KOSTEEN AURREIKUSPENA: : 3.500 euro
- FINANTZIAZIOA: 0100.481.431.50. 01 partidaren kargura, 8. kreditu aldaketa espedientearen kargura gaituko dena.

5.- LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO ETA BIBLIOTEKAKO ESTALKIAN JARRITAKO EGUZKI PLAKEN JABETZAREN LAGAPENA ONARTZEA ETA INBENTARIOAN ALTA EMATEA.

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita, eta horrekin bat etorritz, Udalbatzarrek, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- EEEK ondoren deskribatzen diren instalazio fotovoltaikoen jabetza Udalari lagatzea onartzea.

ESKORIATZAKO BIBLIOTEKAKO ESTALKIKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA	
REPE erreferentzia	20/413-f
CUPS	ES0021000015707795XB
Instalatutako potentzia (kW)	5
Inbertsorea	Ingeteam Ingecon Sun 5 de 5kW a 230V~ (1)
Plakak	Suntech Power STP175S-24/Ac 32 modulo
Balio ekonomikoa*	3.000,00€

*2024ko maiatzean

ESKORIATZAKO LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO ESTALKIKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA	
REPE erreferentzia	20/414-f
CUPS	ES0021000013929981VM
Instalatutako potentzia (kW)	5
Inbertsorea	Ingeteam Ingecon Sun 5 de 5kW a 230V~ (1)
Plakak	Suntech Power STP175S-24/Ac 32 modulo
Balio ekonomikoa*	3.000,00€

*2024ko maiatzean

Bigarrena.- Instalazio horiei alta ematea udal inbentarioan.

6.- ESKORIATZAKO MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIKO FITNESS ETA KARDIO ARETOEN EKIPAMENDUA LEASING BIDEZ HORNITU, JARRI ETA MANTENTZE-LANAK EGITEKO KONTRATUA ESLEITZEKO ERABAKIA.

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola Informazio Batzordeak proposamena egin badu ere, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 92. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, Alkateak proposatu du gai-zerrendako gai hau erabakitzeke uztea.

Proposamena justifikatzeko esan du kontratua esleitzeari buruzko edozein erabaki hartu aurretik C artxiboari buruzko informazioa B artxiboan sartzeagatik kontratazio prozesuan ez

2024/05/23
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

onartzeko Kontratazio Mahaiaren erabakiaren aurka Etenon Fitness SLU enpresak 2024ko maiatzaren 21ean jarritako errekurtsio bereziaren aurrean KEAOk (Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoa) hartuko duen erabakia zein izango den jakitea komeni dela.

Aho batez erabaki da gaia mahai gainean uztea.

7.- HERRIKO JAI EGUNA 2025erako PROPOSATZEA.

Aho batez erabaki da 2025erako herriko jai eguna ekainaren 30ean izateko proposatzea.

8.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK (2024ko urtarrila-martxoa).

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezatasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1. ERAGOZPENA: EUSKARA ARLOARI EMANDAKO KUTXAKO 1/2024 ZENBAKIKO

AURRERAKINA: *fakturekin justifikatu gabea, 400 €*

2. ERAGOZPENA: KULTURA ARLOARI EMANDAKO KUTXAKO 2/2024 ZENBAKIKO

AURRERAKINA: *fakturekin justifikatu gabea, 90 €*

3. ERAGOZPENA: *udal dirulaguntzari buruzko informazioa buzoneatzea. Ez dago fakturarik (140,00 €)*

4. ERAGOZPENA: *ez delako bidezkoa 2023ko urriaren 31ko 1538. zenbakiko Alkate erabakiz onartutako EIOZaren eta tasaren likidazio berriari JAKION SL-k jarritako errekurtsioa onartzea.*

ERAGOZPENAK DIRULAGUNTZETAN:

- ARIZMENDI KIROL ELKARTEARI ordaindutakoa 2023ko aurrekontuaren kargura: *gastuaren % 70,30 boluntarioei egindako ordainketei dagokie, eta ez da bidezkoa.*
- Caritas Diocesanari ordaindutakoa: *bakarrik % 19,08 justifikatu da fakturekin.*

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

9.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).



Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2024ko lehen hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

10.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:40ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrarlas conformes son aprobadas el acta de la sesiones celebradas en fecha 25/04/2024 y 15/05/2024 .

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 15 de mayo de 2024

3.- ADJUDICACION DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA (SERVICIOS OBLIGATORIOS Y SERVICIOS OPCIONALES).

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 21 de marzo de 2024, adoptó el acuerdo de aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto, con varios criterios de adjudicación, de prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza (servicios obligatorios y servicios opcionales), y con valor estimado por importe de 253.350,78 (IVA incluido) euros al año, y una duración de 1 año, que podrá ser prorrogado por otros 2 años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de 3 años.

Dentro del plazo establecido al efecto, presentó oferta la siguiente empresa:

- PREZERO ESPAÑA S.A.U.

El resultado de la valoración de la oferta ha sido el siguiente:

La referida ponderación es la siguiente:

CRITERIO	PREZERO ESPAÑA SAU
Organización trabajo (hasta 20 puntos)	15 puntos
Maquinaria (hasta 4 puntos)	3 puntos
Oferta servicios obligatorios (precio licitación 228.318,89 euros)	Precio licitado: 228.090,57 € Puntos: 75 puntos
Oferta servicios opcionales (precio licitación 100 euros/hora)	Precio licitado:100 €/hora Puntos: 1 punto
TOTAL	94 puntos

2024/05/23
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria



Vista la propuesta de la Mesa de Contratación de fecha 30 de abril de 2024.05.20

Visto que la empresa PREZERO ESPAÑA S.A.U. ha procedido a la entrega de la documentación a la que fue requerida y al depósito de la fianza definitiva, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

Primero: Adjudicar a PREZERO ESPAÑA SAU el contrato de PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA por los precios que a continuación se indicarán y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista.

Precio:

Servicios obligatorios: por un precio de 228.090,57 € más 22.809,06 €, correspondientes al IVA.

Servicios opcionales: Por un precio de 100 € más 10 € correspondientes al IVA

Segundo: Las personas trabajadoras destinada a la ejecución de este contrato estarán sujetas al CONVENIO COLECTIVO DE LIMPIEZA VIARIA Y RECOGIDA DE RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS DE GIPUZKOA.

Tercero: Publicar la adjudicación y formalización de la presente contratación en el Perfil del Contratante y en el Diario Oficial de la Unión Europea -DOUE.

Cuarto: Aprobar el gasto de 137.095,63€ euros con cargo a la aplicación presupuestaria correspondiente del Presupuesto del ejercicio 2024.

4.- MODIFICACIÓN 1/2024 DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES.

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 21 de diciembre de 2023, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027.

Aprobado, se ha visto desde el área de Desarrollo Económico la conveniencia de modificar las previsiones contempladas en su Anexo-2024, e introducir en la Línea Estratégica 7: Fomento Económico y Social un nuevo programa de ayudas para AXTROKI MERKATARI ELKARTEA

Vista la propuesta y de conformidad con el dictamen elevado, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

PRIMERO.- Introducir en la Línea Estratégica 7 FOMENTO ECONOMICO Y SOCIAL el siguientes programa de subvenciones:

F) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: AXTROKI MERKATARI ELKARTEA

- DESTINATARIOS: Axtroki Merkatari Elkartea
- OBJETO: Colaborar en la financiación de actividades y proyectos que la asociación organice durante 2024 para dinamizar el comercio municipal de acuerdo con los objetivos estratégicos de la línea estratégica de actuación del programa.
- EFECTO PRETENDIDO: Dinamizar y potenciar el comercio de Eskoriatza.
- MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Directa-nominativa
- COSTES PREVISIBLES : 3.500 euros

2024/05/23
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

- FINANCIACIÓN: con cargo a la partida 0100.481.431.50. 01 que se habilitará con cargo al expediente de modificación de créditos nº 8

5.- ACEPTACIÓN DE LA CESIÓN Y ALTA EN EL INVENTARIO DE LA PROPIEDAD DE LAS PLACAS SOLARES INSTALADAS EN LAS CUBIERTAS DE LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA Y EN LA BIBLIOTECA.

Vista la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico y de conformidad con la misma, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

Primero: Aceptar la cesión que el EVE hace a este Ayuntamiento de la propiedad de las instalaciones fotovoltaicas que a continuación se describen

ESKORIATZAKO BIBLIOTEKAKO ESTALKIKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA	
REPE erreferentzia	20/413-f
CUPS	ES0021000015707795XB
Instalatutako potentzia (kW)	5
Inbertsorea	Ingeteam Ingecon Sun 5 de 5kW a 230V~ (1)
Plakak	Suntech Power STP175S-24/Ac 32 modulo
Balio ekonomikoa*	3.000,00€

*2024ko maiatzean

ESKORIATZAKO LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO ESTALKIKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA	
REPE erreferentzia	20/414-f
CUPS	ES0021000013929981VM
Instalatutako potentzia (kW)	5
Inbertsorea	Ingeteam Ingecon Sun 5 de 5kW a 230V~ (1)
Plakak	Suntech Power STP175S-24/Ac 32 modulo
Balio ekonomikoa*	3.000,00€

*2024ko maiatzean

Segundo: Dar de alta en el inventario municipal a dichas instalaciones.

6.- ACUERDO SOBRE LA ADJUDICACION DEL CONTRATO DE SUMINISTRO, INSTALACIÓN Y MANTENIMIENTO MEDIANTE LEASING DEL EQUIPAMIENTO DE LAS

2024/05/23
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

SALAS DE GIMNASIO FITNESS Y CARDIO DEL POLIDEPORTIVO MANUEL MUÑOZ DE ESKORITZA.

Si bien existe propuesta de la Comisión Informativa de Bienestar Social y Deportes, al amparo de lo previsto por el artículo 92 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el cual se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el Alcalde propone que quede sobre la mesa el presente asunto del orden del día.

Justifica la propuesta en la conveniencia de conocer, antes de la adopción de cualquier acuerdo en relación a la adjudicación del contrato, de cuál va a ser la resolución que adopte el OARC (Órgano Administrativo de Recursos Contractuales) ante el recurso especial interpuesto por la empresa Etenon Fitness SLU con fecha 21 de mayo de 2024 contra acuerdo de la Mesa de Contratación declarando su inadmisión en el proceso de contratación por haber incluido en el archivo B información relativo al archivo C.

Por unanimidad se acuerda dejar el asunto sobre la mesa.

7.- PROPUESTA DE FESTIVO LOCAL PARA 2025.

Por unanimidad se acuerda proponer el 30 de junio como festivo local para el año 2025.

8.- .- REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARIA-INTERVENCION (enero-marzo 2024).

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de enero al 31 de marzo de 2024, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

REPARO Nº1: ANTICIPO DE CAJA 1/2024 CONCEDIDO AL AREA DE EUSKERA: No justificado con facturas 400 €

REPARO Nº2: ANTICIPO DE CAJA 2/2024 CONCEDIDO AL AREA DE CULTURA: No justificado con facturas 90 €

REPARO Nº 3: Buzoneo-Información sobre subvenciones municipales. No hay factura (140,00 €)

REPARO Nº 4: Por no proceder la estimación del recurso interpuesto por JAKION SL a la nueva liquidación del ICIO y de la tasa aprobada por Resolución de Alcaldía Nº 1538, de fecha 31 de octubre de 2023

REPAROS EN SUBVENCIONES:

- *Por la abonada a ARIZMENDI KIROL ELKARTEA con cargo al presupuesto 2023: el 70, 30 % del gasto es relativo a pagos a voluntarios cuando no procede.*
- *Por la abonada a Caritas Diocesana: sólo el 19,08 % se justifica con facturas.*

2024/05/23
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria



El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

9.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO (art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al primer trimestre de 2024.

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:40 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.